

## EUSKAL DIASPORA

### Indianoak 2013, Kubako Euskal Etxea eta Chilida katedra Frankfurt

Egiari zor, anitz astetan ez da aise hautatzea zoin gai aipatu xoko huntan, euskaldunen Diaspora arras aktibo eta emankorra baita eta gero eta gehiago baitira aste guziz munduan barna garatzen eta iragartzen diren euskal hitzordu eta ekimenak. Gaurkoa, Quebec-en hasiko dugu. Izan ere, iragan asteburuan Quebec-eko Trois-Pistoles herrian egin euskal besta batekin abiatu ziren « Indianoak 2013 » espedizioko lagunak Saint Laurent ibaian eginen duten 500 kilometroko bidaian, XVI. mendeko balezaleen molde eta usaian, treneruan arraunlari. Angeluko Ibaialde eta Quebec-eko Euskal Etxea antolatzaile, hamalau dira arraunlariak eta hiru aste hartuko dituzte, hamahiru etapatan, Paule Charron 36 urteko emaztea patroï gidari. Ondarrean, Montrealgo euskaldunei utziko diete trenerua bidaia bururatzen dutenean. Guzia internetez segitzeko, Indianoak.fr.

Historiaduna, baina ez hain zaharra, Kubako Habanako euskal etxea da. Munduko euskal etxe zaharrenetarik bat da, 1877an sortua. Ondarreko urte frangotan elkartea kixkun-kaxkun ibili da. Iaz zuzendaritza-batzorde berria hautatu da eta hasia da higitzen eta geroari buruz lan egiten. Renato Garcia Egusquiza du orai lehendakari hautetsia eta euskal etxea « Kubako euskaldunen eta euskaldunen ondorengo gazteentzat erreferentzia bilakatzea » nahi du. Egoitza bat ardietsi eta euskara eskolekin eta elkarretaratze eta bilerekin segitzea du xede. Lau batzorde ditu : gazteria, kirol, kultura eta ongintza. Emaila : avnb@enet.cu.

Bitartean, mundu mailan XX.mendeko zizelkari garrantzitsuenetarik izan zen Eduardo Chilida donostiarraren izena duen katedra\* ideki dute Alemanian, Frankfurt-eko Unibertsitatean. Euskal Artea ikertzea du helburu, eta euskaldunen ekarpena landu eta zabaltzea, Chilidaren lanak abiapuntu. Etxepare Euskal Institutua izan du sustatzaile. Euskara eta euskal kultura klaseak hogeita hamarretik goiti dira munduko unibertsitateetan, baina katedra gisa hiru sortu ditu Etxeparek : Frankfurt-eko hau, New-York-eko Bernardo Atxaga katedra eta Chicago-ko Koldo Mitxelena katedra.

Bestenaz, Donibane eta San Juan suak prestatzen ari dira aste huntan mundu osoko euskal etxeetan. Bilbon, mundu osoko 20 euskal etxetako euskara ikasleek parte hartuko dute ostegun hontan, bideo bidez, Klasikoen 6. Irakurketan, Arriaga antzokian Atxagaren Obabakoak irakurriz, beste ehundaka euskaldunekin batera, eleberri honen 25 urteak ospaturik. Eta zabalik da Gaztemundu 2013 programan izena emateko epea. Heldu den astean gehiago.

Joseba Etxarri-ren artikulua,  
HERRIA astekaria, 2013-ko ekainaren 20-ekoa.

\*NDR : Katedra ("une chaire d'université") : unibertsitate edo eskola handi batean, irakasle bati emana zaion postu iraunkorra, ikasgai baten irakasteko.